

# Hilkortasuna

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2010

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO

# Hilkortasuna

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN  
2010

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA**

Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntzako  
Saiburuordetza  
*Ezagutzaren Gestioiko eta Ebaluazioko  
Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO**

Viceconsejería de Calidad, Investigación  
e Innovación Sanitaria  
*Dirección de Gestión del Conocimiento y  
Evaluación*

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

**Argitaraldia:**

1.<sup>a</sup>, 2012ko ekaina

**Ale-kopurua:**

30 ale

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Osasun eta Kontsumo Saila

**Internet:**

[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

**Zuzendaritza, koordinazioa eta elaborazioa:**

C. Audicana Uriarte, M.I. Izarzugaza ([info-san@ej-gv.es](mailto:info-san@ej-gv.es))  
Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzua  
Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza  
Osasun eta Kontsumo Saila

**Diseinua eta maketazioa:**

EkipoPO

**Inprimaketa:**

Eusko Jaurlaritzako Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

**L.G.:**

VI 478-2012



# Aurkibidea

- 
- 7** LABURPENA
  - 9** MATERIALA ETA METODOAK
  - 11** EMAITZAK
  - 47** IRUZKINAK
  - 49** TAULAK
  - 49** BIBLIOGRAFIA
  - 51** ESKER ONAK



# 1 Laburpena

**T**xosten honetan 2010. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi diren pertsonen hilkortasunari buruzko informazioa aurkeztuko dugu, baita beste autonomia-erkidegoetan hildakoena ere. Pertsona horien banaketa egiteko sexua, adina eta lurralde historikoa kontuan hartu dira, oinarritzko heriotza-arrazoia aldagai nagusi gisa erabiliz.

Horrez gainera, heriotza-kausa nagusiek 1990 eta 2010 urteen artean izandako bilakaera ere jaso dugu, sexuaren aldagaia aintzat hartuta.

2010. urtean 19.357 heriotza gertatu dira, 9.312 (%48) emakumezko eta 10.045 (%52) gizonezko. Arrazoi guztiak kontuan hartuta, hauxe da hilkortasun-tasa gordina: 100.000 biztanleko 893, emakumezkoen tasa 840koa da eta gizonezkoena, berriz, 950koa.


Tumoreak dira EAEko biztanleriaren heriotza-kausa nagusia, heriotza guztien %31 eragin baitute (266ko tasa); bigarren tokian daude zirkulazio-sistemako gaixotasunak, horien ondorioz gertatu baitira heriotzen %29 (252ko tasa 100.000 biztanleko). Heriotzen %9 eragin dituzte arnas sistemako gaixotasunek (82ko tasa 100.000 biztanleko) eta %6ra iritsi dira nerbio-sistemako gaixotasunak eta buruzko asalduak (100.000 biztanleko 55eko eta 47ko tasekin, hurrenez hurren).

Urtebetetik beherako haurren heriotza-tasa bizirik jaiotako 1.000 haurreko 2,6 hildako da; eta jaiotza-inguruko heriotza-tasa (hilik jaio direnak gehi bizitzako lehenengo astean hildakoak), berriz, guztira jaiotako 1.000 haurretik 5,5koa.

EAEan, 2010. urtean, jaiotzean dagoen bizi-itxaropena edo batez besteko bizitza 86 urtekoa da emakumeentzat eta 79 urtekoa gizonezkoentzat; hala, bada, 7 urteko aldeari eusten zaio bi sexuen artean.

2010. urtean, tumoreak (%47), zirkulazio-sistemako gaixotasunak (%16), kanpoko arrazoiak (%16) eta digestio-sistemako gaixotasunak (%6) izan dira, sexu bietan, bizitza-urte potentzial gehien galarazi dituzten heriotza-arrazoiak.

Emakumeei dagokienez, hiru dira 1990tik hona gehien igo diren heriotza-arrazoiak: Alzheimer gaixotasuna (urteko %13ko igoera), zintzur-heste, bronkio eta biriketako tumore gaiztoa (%6) eta koloneko tumore gaiztoa (%3). Garuneko hodiedetako gaixotasunen eta kardiopatia iskemikoen ondoriozko heriotzek behera egin dute (%4 urtean), nahiz eta zerrendako lehenengo tokien artean dauden oraindik ere. Gizonezkoen artean, Alzheimer gaixotasuna (%12 urtean) eta zahartzaroko zein zahartzaro aurreko buruko asaldu organikoak (%8) areagotu dira gehien bi hamarkada horietan. Azken hamarkadan BGBKen ondoriozko heriotza-tasak behera egin du: %5 urtean kardiopatia iskemikoen ondoriozkoak eta %4 urtean garuneko hodiedetako gaixotasunen ondoriozkoak.



## 2

# Materiala eta metodoak

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) hilkortasun-datuei buruzko informazioa bilatzeko informazio-iturri nagusiak honako hauek dira: Heriotzaren Mediku Ziurtagiriak/Heriotzaren Buletin Estatistikoak (HMZ/HBE) eta Erditzeen Buletin Estatistikoak (EBE). Lehenengo buletineta 24 ordu baino gehiago dutenen artean gertatutako heriotzak biltzen dira; bigarrenetan, berriz, lehenengo 24 orduetan hildakoak eta fetuaren heriotza berantiarak (22 astetik gorako ernaldikoak edo 500 gramo baino gehiagoko pisua dutenak).

HMZ/HBEak heriotza ziurtatzen duen medikuak betetzen dituzte. Heriotza gertatu den udalerriko Erregistro Zibilean erregistratzen da hildakoa, eta Estatistikako Institutu Nazionaleko (EIN) dagokion probintziako ordezkariak bidaltzen da HMZ/HBEa.

Euskal Estatistikako Erakundearen (EUSTAT) bitartez, HMZ/HBEak Osasun Saileko Hilkortasun Erregistrora heltzen dira eta, hor, oinarrizko heriotza-arrazoia kodetzen da, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren 10. berrikuspenak (GNS-10) ezarritako irizpide eta arauen arabera<sup>1</sup>.

2010. urtean EAEn bizi zen biztanleria kalkulatzeko, betetako adina, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta, EUSTATEk emandako 2001eko zentsuaren eta 2006ko biztanleria eta etxebizitzari buruzko estatistikaren arteko estrapolazio lineala egin da (2. eranskina). Horrez gainera, 2010ean EAEn gertatutako jaiotzei buruzko informazioa eman du, haurren heriotza-tasak kalkulatzeko beharrezkoa baita (3. eranskina).

Hona hemen kalkulatu diren hilkortasun-adierazleak: hilkortasun proportzionala eta hilkortasun-tasak, gordinak zein adinaren arabera estandarizatuak (estandarizazio zuzenaren bidez), erreferentziako biztanleria gisa Europako biztanleria estandarra hartuta<sup>2</sup>.

Haurren heriotza-tasaren (urtebetetik beherakoak) analisisian, hildakoen adina hiru alditan taldekatu da: jaioberri goiztiarra (7 egun baino gutxiago dutenak), jaioberri berantiarra (7 egunetik 28 egunera bitartekoak) eta jaioberri ondokoak (28 egunetik urtebetera artekoak).

EAEn 2010. urtean bizirik jaiotako haurren guztizkoa izan da haurren heriotza-tasak kalkulatzeko izendatzailea. Jaiotza-inguruko heriotza-tasa ere aztertu da, hau da, 22 astetik gorako ernaldiaren ondoren edo 500 gramo baino gehiagorekin hilik jaiotako haurrak, batetik, eta jaioberri goiztiarraren aldia hildakoak aintzat hartzen dituenak, bestetik. Horien izendatzailea jaiotzen guztizko zenbatekoa izan da, hau da, 22 astetik gorako ernaldiaren ondoren bizirik nahiz hilik jaiotakoak<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Osasunaren Erakunde Panamerikarra. *Clasificación Estadística Internacional de Enfermedades y Problemas relacionados con la Salud*. Décima revisión. 1-3 bol.. Washington DC: OPS; 1996.

<sup>2</sup> Dos Santos I. *Cancer Epidemiology: principles and methods*. International Agency for Research on Cancer, Lyon, 1999, 82. or.



Bizi-itxaropena kalkulatzeko, Chiang metodoaren arabera<sup>3</sup> laburtutako bizitza-taularen kalkulua erabili da. 5 urteko adin-tarteak aintzat hartu dira, urte batetik beherakoa eta 1-4 urtekoa izan ezik.

Garaiz aurreko hilkortasunaren eragina balioesteko, Galdutako Bizitza Urte Potentzialak (GBUP) kalkulatu dira. Adierazle horrek hauxe adierazten du: jaiotzaren lehen urtearen ondoren garaia baino lehenago hil den pertsonak bizi ez dituen urteak, goi-mugatzat 70 urte hartuta<sup>4</sup>. Konparazioetan biztanleen adinaren arabera banaketak izan dezakeen eragina saihesteko, GBUPak adinaren arabera egokitu dira Europako populazio estandarrerera.

Txosten honek azertu du, orobat, heriotza-arrazoi nagusien ondoriozko heriotza-tasak 1990-2010 aldian izandako joera, sexua eta lurralde historikoa aintzat hartuta.

Tasek denboran izan duten bilakaera aztertzeko, erregresio loglinealeko ereduak (*Joinpoint regression*) erabiltzen da, eta hartara, Urteko Aldaketa Ehunekoa (UAE) eta joeren inflexio-puntuak kalkula daitezke, baldin badaude<sup>5</sup>.

---

<sup>3</sup> Chiang CL. *The Life Table and its applications*. Malabar, Florida: Robert E Krieger Publishing Company, 1884.

<sup>4</sup> Esteve J, Benhamou E and Raymond L. *Statiscal methods in cancer research. Descriptive Epidemiology*. Lyon: International Agency for Research on Cancer. Scientific Publications, 128. zk., 1994.

<sup>5</sup> Kim HJ, Fay MP, Feuer EJ, Midthune DN. Permutation tests for joinpoint regression with applications to cancer rates. *Stat Med* 2000;19: 335-51 (zuzenketa: 2001;20:655).

# 3 Emaitzak

## 1. Heriotza-kopurua eta -tasak


2010. urtean, egoitza EAEn zuten 19.357 pertsona hil dira. Horietako 594 beste autonomia-erkidego batzuetan hil dira. Erregistratutako heriotzen guztizkotik 9.312 (%48) emakumezkoen dagozkie, eta 10.045 (%52), gizonezkoen.

EAEn hauxe da hilkortasun-tasa gordina: 100.000 biztanleko 893,4. Sexuaren arabera, emakumezkoen tasa 839,6koa da eta gizonezkoena, berriz, 949,8koa. Adinaren arabera Europako populazioarekin estandarizatutako hilkortasun-tasa 100.000 biztanleko 338,9 da emakumezkoen kasuan eta 644,5 gizonezkoen kasuan. Lurralde historikoa kontuan hartzen bada, sexu bietan, honako tasa hauek ateratzen dira: 429,9 Araban, 488,6 Bizkaian eta 458,2 Gipuzkoan (**1. taula**).

**1. irudian** ikus daiteke azken hamarkadan (2001 - 2010) hilkortasun-tasek EAEn izan duten denboraren araberrako bilakaera, arrazoi guztiak eta sexua kontuan hartuta, eta horiek adinaren arabera estandarizatuta.


**2. taulan** eta **2. irudian**, berriz, heriotza-kopurua eta adinaren arabera zehaztutako hilkortasun-tasak bildu dira. Tasen jaitsiera nabarmena izan da, bi sexuetan, bizitzako lehenengo urtearen ondoren hildakoei eta 10-14 urteko taldera iritsi arteko taldeei dagokienez; une horretan mailaz mailako gorakada hasten da, adinak aurrera egin ahala. 15-19 urteko adin-taldetik aurrera gizonen heriotza-tasek emakumeenak gainditzen dituzte eta ezberdintasunik handienak 20-24 urte bitarteko taldean daude, 4,4 puntuko aldearekin.

### 1. irudia. Heriotza-tasaren aldi baterako bilakaera sexuaren arabera. EAE 2001 - 2010



\* Adinaren arabera Europako biztanleria estandarri doitutako tasak

## 2. irudia. Heriotza-tasak adinaren eta sexuaren arabera. EAE 2010




## 2. Hilkortasuna, heriotzaren oinarriko arrazoiaren arabera

**3. irudian**, gaixotasun-talde handien banaketa agertzen da, sexua aintzat hartuta. EAEko biztanleriaren heriotza-kausa nagusia tumoreak izan dira 2010ean, guztizkoaren %31, hain zuzen ere. Bigarren tokian daude zirkulazio-sistemako gaixotasunak, guztizkoaren %29rekin. Maiztasun-ordena kontuan hartuta, honako hauek datoz atzetik: arnas sistemako gaixotasunak (%9), nerbio-sistemako gaixotasunak eta buruko asalduak (biak %6ko indizearekin), eta digestio-sistemako gaixotasunak (%5).


Sexuaren arabera hauxe da banaketa: emakumezkoetan lehenengo heriotza-arrazoiak zirkulazio-sistemako gaixotasunak dira (%31), eta ondoren tumoreak (%24), buruko asalduak, arnas sistemako gaixotasunak eta nerbio-sistemako gaixotasunak (%8), eta, azkenik, digestio-sistemako gaixotasunak (%4). Gizonezkoetan, ostera, tumoreak dira lehenengo heriotza-arrazoiak (%37), gero zirkulazio-sistemako gaixotasunak datoz (%27), eta jarraian, arnas sistemako gaixotasunak (%9), digestio-sistemako gaixotasunak (%5), kanpo-arrazoiak eta nerbio-sistemako gaixotasunak (%4, biak).

## 3. irudia. Heriotza-tasa proportzionala gaixotasun-talde handien eta sexuaren arabera. EAE 2010




**3.A eta 3.B irudietan** ikus daiteke gaixotasun-talde handien banaketa, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. **3. eta 4. tauletan (4.A, 4.B, 4.C)** gaixotasun-talde handien araberako hilkortasun-tasak adierazi ditugu, sexua eta lurralde historikoa kontuan hartuta.

**3.A. irudia. Heriotza-tasa proportzionala gaixotasun-talde handien eta lurralde historikoaren arabera. Emakumeak 2010**



**3.B. irudia. Heriotza-tasa proportzionala gaixotasun-talde handien eta lurralde historikoaren arabera. Gizonak 2010**



Adin-taldeen araberako heriotzak **5. taulan** aurkezten dira. Urte bat baino gutxiago dutenen kasuan, jaiotza-inguruko eritasunak eta sortzetiko anomaliak dira sarrien gertatzen diren arrazoiak; bi horien baturak adin-talde horretan gertatutako heriotza guztien %78 adierazten du emakumezkoen kasuan eta %82 gizonzkoen kasuan.

*80 urtera arteko emakumeen* kasuan tumoreak dira heriotza-kausa nagusia adin-talde guztietan, *15-19 urte bitartekoan izan ezik*; azken horretan kanpo-arrazoiek eragiten baitute heriotza gehien. 45 eta 79 urte bitarteko emakumeen artean zirkulazio-sistemako gaixotasunak bigarren tokian daude, baina lehenengora igarotzen dira *80 urtetik aurrerako* adin-taldean.

15-39 urteko gizonzkoen artean kanpo-arrazoiak dira heriotza-arrazoi nagusia, eta horien atzetik tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak datoz. Emakumeen kasuan bezalaxe, tumoreak dira helduaroko heriotza-arrazoi nagusia 40-84 urtekoen artean; zirkulazio-sistemako gaixotasunak, berriz, bigarren tokian daude. 85 urtetik aurrera, zirkulazio-sistemako gaixotasunak dira lehenengo heriotza-arrazoiak.

Hilkortasuna arrazoi bereziak eta sexua aintzat hartuta aztertuz gero (**6. taula**) bi dira heriotza-arrazoi nagusiak (%8ko indizearekin biak) emakumeengan: garuneko hodietako gaixotasunak (100.000 biztanleko 24,5 heriotzako tasarekin, adinaren arabera Europako populazio estandarrerara egokituta) eta zahartzaroko eta zahartzaro aurreko buruzko asaldu organikoak (20,6ko tasa). Hirugarren tokian, %6ko indizearekin, kardiopatia iskemikoak —talde horretan sartzen dira miokardioko infartu akutua (MIA) eta bihotzeko beste gaixotasun iskemiko batzuk— daude hirugarren tokian, %6ko indizea eta 100.000 biztanleko 17,4ko tasarekin. Ondoren datoz, %5arekin, Alzheimer gaixotasuna (13,0ko tasa) eta bihotz-gutxiegitasuna (12,1eko tasa). Horien atzetik, %4ko indizea eta 10,0ko tasarekin (100.000 biztanleko) gaixotasun hipertentsiboak daude, eta %3ko indizearekin bularreko tumore gaiztoa, diabetesa eta zintzur-heste, bronkio eta birrikako tumore gaiztoa (16,2, 9,1 eta 15,6ko tasak, hurrenez hurren, 100.000 biztanleko).

*Gizonzkoetan*, kardiopatia iskemikoa eta zintzur-heste, bronkio eta birrikako tumore gaiztoa dira lehenengo heriotza-arrazoiak, heriotza guztien %9 eragiten baitute batak zein besteak, eta 100.000 biztanleko 59,7 eta 60,5eko tasak dituzte, hurrenez hurren, adinaren arabera Europako biztanleria estandarrerara egokituta. Hirugarren tokian garuneko hodietako gaixotasunak daude, %6ko indizea eta 35,9ko tasarekin; jarraian, %5arekin, biriketako gaixotasun butxatzaile kronikoa (BGBK) dago, 100.000 biztanleko 30,5eko tasarekin. Maiztasun-ordenaren arabera datoz, ondoren, koloneko tumore gaiztoa (%4), prostatako tumore gaiztoa (%3) eta zahartzaroko eta zahartzaro aurreko buruko asalduak (%3), 100.000 biztanleko 23,6, 19,2 eta 18,8ko tasekin, hurrenez hurren.

*Lurralde historikoei eta emakumeei erreparatuta* (**7.A taula**), Araban zahartzaroko eta zahartzaro aurreko buruko asalduak dira lehenengo heriotza-arrazoiak, guztizkoaren %10ekin eta 100.000 biztanleko 23,3ko tasarekin. Bizkaian eta Gipuzkoan gaitz horiek bigarren tokian daude, %8ko indizea eta 100.000 biztanleko 20,9 eta 18,9ko tasekin, hurrenez hurren. Lurralde horietan garuneko hodietako gaixotasunek eragiten dituzte heriotza gehien: %9 Bizkaian (21,7ko tasa) eta %8 Gipuzkoan (21,0ko tasa). Kardiopatia iskemikoa dago zerrendako bigarren tokian Araban, %8ko indizea eta 100.000 biztanleko 20,7ko tasarekin; Bizkaian, berriz, hirugarren tokian dago, %6ko indizea eta 100.000 biztanleko 17,8ko tasarekin. Zerrendako hirugarren tokian garuneko hodietako gaixotasunak daude Araban, %8ko indizea eta 100.000 biztanleko 22,2ko tasarekin; Gipuzkoan Alzheimer gaixotasuna dago toki horretan, %6ko indizea eta 100.000 biztanleko 14,4ko tasarekin.

*Gizonzkoen* dagokienez (**7.B taula**), kardiopatia iskemikoa da heriotza-arrazoi nagusia lurralde historiko guztietan: %9ko maiztasuna du Araban eta Gipuzkoan eta %10ekoa Bizkaian; 100.000 biztanleko tasak, berriz, 51,1, 54,3 eta 65,7koak dira, hurrenez hurren. Bigarren heriotza-arrazoi ugariena, lurralde historiko guztietan hori ere, birrikako tumore gaiztoa da: %7ko maiztasuna eta 100.000 biztanleko 43,1eko tasa ditu Araban, %10ekoa eta 69,2koa Bizkaian eta %8koa eta 54,4koa Gipuzkoan. Zerrendako hirugarren tokian garuneko hodietako gaixotasunak daude Araban, %7ko indizea eta 100.000 biztanleko 35,9ko tasarekin; Gipuzkoan eta Bizkaian %6ko maiztasuna dute, eta 100.000 biztanleko 37,1eko eta 34,0ko tasak, hurrenez hurren.

### 3. Haurren hilkortasuna

2010. urtean, 55 heriotza gertatu dira urtebete baino gutxiago duten EAeko biztanleen artean; horrek esan nahi du haurren heriotza-tasa bizirik jaiotako 1.000 biztanleko 2,6koa dela. Lurralde historikoak aintzat hartuz gero (**8. taula**), Bizkaian dago tasarik altuena, 3,5ekoa, hain zuzen ere. **9. taulan** bildu ditugu haurren hilkortasunari buruzko datuak, aldien, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera.

Jaiotza-inguruko heriotza tasa 5,5ekoa da EAEn, jaiotako 1.000 haurretako. Arabak eta Bizkaiak dute tasarik altuena, 6/1.000ko, eta Gipuzkoak baxuena, 5/1.000ko (**10. taula**).

## 4. Bizi-itxaropena

2010. urtean, jaiotzean dagoen bizi-itxaropena edo batez besteko bizitza 85,9 urtekoa da EAEn emakumezkoetan, eta 79,2 urtekoa gizonezkoetan. Araban dago bizi-itxaropenik handiena jaiotzean: emakumezkoen kasuan 86,8 urte eta gizonezkoen kasuan 80,5 urte. Ondoren, Gipuzkoa dator (85,9 urte emakumezkoetan eta 79,7 urte gizonezkoetan), eta hirugarren Bizkaia (85,6 urte emakumezkoetan eta 78,5 urte gizonezkoetan).

Sexuaren arabera, bizi-itxaropenen arteko aldea 7 urte ingurukoa da 44 urtera arte. Adinak gora egin ahala aldeak behera egiten du, ordea: 69 urtera arte 5 urtekoa da, eta 85 urterekin 2 urtekoa (**11. taula**).

## 5. Galdutako Bizitza Urte Potentzialak

Azterketa gaixotasun-talde handiak kontuan hartuta egiten bada, hauek izan dira, sexu bietan, 2010. urtean, bizitza-urte potentzial gehien galarazi dituzten heriotza-arrazoiak: tumoreak (%47), zirkulazio-sistemako gaixotasunak (%16), kanpoko arrazoiak (%16), digestio-sistemako gaixotasunak (%6), nerbio-sistemako gaixotasunak (%3), arnas sistemakoak (%3) eta gaixotasun infekzioso eta parasitarioak (%3).

**12. taulan** daude ikusgai bizitza-urte potentzial gehien galarazi dituzten arrazoi espezifikoak.

Emakumeen artean, zintzur-heste, bronkio eta birrikako tumore gaiztoa da nagusi, 2.075 bizitza-urte potentzial galarazi baititu, eta 1.000 biztanleko 1,9ko tasa baitu, adinaren arabera Europako populazio estandarrera egokituta. Atzetik datoz, maiztasun-hurrenkeraren arabera: bularreko tumore gaiztoa (1.878 urte eta 1,7ko tasa), koloneko tumore gaiztoa (713 urte eta 0,6ko tasa), garuneko hodietako gaixotasunak (700 urte eta 0,7ko tasa), zirrosia eta gibelesko gaixotasun kronikoak (563 urte eta 0,5eko tasa), obulutegiko tumore gaiztoa (540 urte eta 0,5eko tasa) eta, azkenik, urdaileko tumore gaiztoa (515 urte eta 0,5eko tasa).

Gizonezkoen artean ere, garaiz aurreko heriotza zintzur-heste, bronkio eta birrikako tumore gaiztoak eragin du batik bat, 4.408 urteko galarazpenarekin eta 1.000 biztanleko 4,1eko tasarekin, adinaren arabera Europako populazio estandarrera egokituta. Segidan, honako hauek datoz: kardiopatia iskemikoa (3.350 urte eta 3,1ko tasa), suizidioak eta nork bere buruari egindako lesioak (1.888 urte eta 1,9ko tasa), motordun ibilgailuen trafiko-istripuak (1.827 urte eta 2,1eko tasa), zirrosia eta gibelesko gaixotasun kronikoak (1.633 urte eta 1,5eko tasa) eta koloneko tumore gaiztoa (910 urte eta 0,8ko tasa).

*Arabako emakumeen artean*, bularreko tumore gaiztoa da garaiz aurreko heriotza eragiten duen gaixotasun nagusia: 1.000 biztanleko 1,7ko tasa du, adinaren arabera Europako populazio estandarrera egokituta. Jarraian daude birrikako tumore gaiztoa (215 urte eta 1,3ko tasa) eta garuneko hodietako gaixotasunak (160 urte eta 1,0ko tasa). *Bizkaia eta Gipuzkoako emakumeengan* birrikako tumore gaiztoa da bizitza-urte potentzial gehien galarazten dituen: 1.140 eta 720 urte, eta 1,9 eta 2,1eko tasak 1.000 biztanleko, hurrenez hurren. Bigarren tokian dago bularreko tumore gaiztoa: 1.023 urte eta 1,7ko tasa Bizkaian eta 575 urte eta 1,6ko tasa Gipuzkoan. Zerrendako hirugarren tokian garuneko hodietako gaixotasunak daude *Bizkaiko emakumez ari bagara*, 445 urte eta 1.000ko 0,8ko tasarekin; *Gipuzkoako emakumei dagokienez*, berriz, urdaileko tumore gaiztoa, 235 urte eta 1.000 biztanleko 0,8ko tasarekin.

*Arabako gizonezkoen artean*, suizidioen eta nork bere buruari eragindako lesioen ondorio dira garaiz aurreko heriotza gehienak, 1.000 biztanleko 2,7ko tasarekin (438 urte), adinaren arabera Europako biztanleriara egokituta. *Bizkaia eta Gipuzkoako* gizonezkoek dagokienez, berriz, zintzur-heste, bronkio eta birrikako tumorea dago toki horretan, 4,6 (2.620 urte) eta 4,1eko (1.460) tasekin, hurrenez hurren. Tumore mota hori garaiz aurretiko heriotzaren bigarren kausa nagusia da Araban, 438 urteko guztizko galarazpena eta 2,1eko tasarekin; Bizkaian, berriz, bihotzeko beste gaixotasun iskemiko batzuk daude bigarren tokian (1.050 urte eta 1,8ko tasa) eta Gipuzkoan zirrosia eta gibelesko beste gaixotasun kroniko batzuk (618 urte eta 1,8ko tasa). Jarraian, hirugarren tokian, trafiko-istripuak datoz Araban (257 urte) zein Bizkaian (1.015 urte), 2,2 eta 2,3ko tasekin; Gipuzkoan, ostera, zirrosia eta gibelesko beste gaixotasun


kroniko batzuk: 615 urte eta 1,7ko tasa 1.000 biztanleko. Laugarren tokian miokardioko infartu akutua dago Araban (238 urte) zein Bizkaian (870 urte), 1,5eko tasarekin batean zein bestean; Gipuzkoan, azkenik, suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioek hartzen dute toki hori, 608 urte eta 2,1ko tasarekin (13.A, 13.B eta 13.C taulak).

## 6. Heriotza-tasaren bilakaera heriotza-kausak nagusiak aintzat hartuta (1990-2010)

### 6.1 Emakumeak

Beste behin, *garuneko hodietako gaixotasunak* dira emakumeen heriotza-arrazoi nagusiak, nahiz eta tasek nabarmen egin duten behera aldi horretan, urteko %4,1, hain zuzen ere (61,3koa zen 1990ean eta 24,5koa 2010ean). Beste era batera esanda, 1990ean emakumeen heriotzen guttizkoaren %13 eragiten zuten, baina ehuneko horrek behera egin du 2010eko %8ra iritsi arte. Arlo honetan ez dago ezberdintasunik lurralde historikoen artean (14.A, 15.N, 16.A, 17.N, 18.A, 19.N, 20.A eta 21.N taulak).


#### 4.1. irudia. Garuneko hodietako gaixotasunengatikoko heriotza-tasa. Emakumeak. EAE 1990-2010




UAE: Urteko Aldaketa Ehuneko. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua

Zahartzaroko eta zahartzaro aurreko buruko asalduen ondoriozko heriotza-tasek nabarmen egin dute gora aldi honetan: %0,8 urteko (14,8 1990ean eta 20,6 2010ean). 1990ean seigarren tokian zeuden, emakumeen heriotzen %3 eragiten baitzuten, baina ehuneko hori %8koa da 2010ean eta, horren ondorioz, bigarren heriotza-arrazoi garrantzitsuen dira. Igoera hori Bizkaian bakarrik izan da esanguratsua (14.A, 15.J, 16.A, 17.J, 18.A, 19.J, 20.A eta 21.J taulak).

#### 4.2. irudia. Zahartzaroko eta zahartzaro aurreko buruko asalduegatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak 1990-2010



#### Lurralde historikoa





UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua



*Kardiopatia iskemikoaren* ondoriozko heriotza-tasek, berriz, behera egin dute nabarmen: %4,8 urteko 1996tik (38,4 1996an eta 17,4 2010ean). 1990ean bigarren tokian zegoen, emakumeen heriotzen %9 eragiten baitzuten, baina ehuneko hori %6ra jaitsi da 2010ean eta, horren ondorioz, hirugarrenean jarri da. Araban jaitsi da gutxien indize hori (%4 urtean) eta Gipuzkoan, aldiz, gehien (%5) (**14.A, 15.O, 16.A, 17.O, 18.A, 19.O, 20.A eta 21.O taulak**).



#### 4.3. irudia. Kardiopatia iskemikoagatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

*Alzheimer gaixotasunaren* ondoriozko heriotzak areagotu egin dira 1990. eta 2010. urteen artean; zehatzago, tasek nabarmen egin zuten gora, %13 urtean, 2003. urtera arte (1990ean 1,8koa zen eta 2003an 14,2koa) eta, ondoren, egonkortu egin ziren. 1990ean gaixotasun horrek emakumezkoen heriotza guztien %0,4 eragiten zuen soilik (39. tokian zegoen zerrendan) baina 2010ean %5 eragin zituen. Hiru lurralde historikoetan nabarmena izan da gorakada lehenengo hamarkadan: urteko %30ekoa Araban, %15ekoa Gipuzkoan eta %13koa Bizkaian ([14.A](#), [15.K](#), [16.A](#), [17.K](#), [18.A](#), [19.K](#), [20.A](#) eta [21.K](#) taulak).



#### 4.4. irudia. Alzheimer gaixotasunagatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehuneko. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

*Bihotz-gutxiegitasunaren* ondoriozko heriotza-tasek ere jaitsiera esanguratsua izan dute, hots, %11 urtean 1995etik 2000ra (30,2tik 16,7ra); urte horretatik aurrerako beherakada esanguratsua da, baina ez hain altua: %3 urtean. 1990. urtean heriotza-arrazoi hori zerrendako hirugarren tokian zegoen, heriotza guztien %7 eragiten baitzuen, 2010ean, berriz, %5. Araban eta Gipuzkoan urteko %5 jaitsi da aldi osoan, baina Bizkaian izan da jaitsierarik esanguratsuen, 1994 eta 2002. urteen artean: %10ekoa (**14.A, 15.M, 16.A, 17.M, 18.A, 19.M, 20.A eta 21.M taulak**).



#### 4.5. irudia. Bihotz-gutxiegitasunagatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

*Gaixotasun hipertentsiboen* ondoriozko heriotza-tasak 2,3 egin dute gora aldi horretan (0,6 1990an eta 10,0 2010ean). 1990ean gaixotasun horiek emakumezkoen heriotza guztien %1,3 eragiten zuten (17. tokian zegoen zerrendan) baina 2010ean %4 eragin zituzten. Arabako emakumeen artean urteko %8ko igoera esanguratsua izan zen 2005 urtera arte; ordutik aurrera badirudi tasek beherako joera izan dutela, baina ez nabarmenki. Bizkaian urteko %3 igo da aldi osoan eta Gipuzkoan ez da aldaketa esanguratsurik izan (**14.A, 15.L, 16.A, 17.L, 18.A, 19.L, 20.A eta 21.L taulak**).



#### 4.6. irudia. Hipertentsio-gaixotasunengatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

*Bularreko tumore gaiztoaren* ondoriozko heriotza-tasaren bilakaera urteko %2,6ko jaitsiera esanguratsua izan da (26,1 1990ean eta 16,2 2010ean). 1990ean heriotza-arrazoi hau laugarren zegoen zerrendan, heriotza guztien %4 eragiten baitzuen, eta 2010ean zazpigarrenean, %3rekin. Beherakada hori urtean %3koa izan da Arabako eta Gipuzkoako emakumeen artean, eta %2koa Bizkaikoetan (**14.A, 15.F, 16.A, 17.F, 18.A, 19.F, 20.A eta 21.F taulak**).



#### 4.7. irudia. Bularreko tumore gaiztoengatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

*Diabetes mellitus* gaixotasunaren ondoriozko heriotza-tasek urtean %2,7ko jaitsiera nabarmena izan dute aldi honetan (1990eko 14,4tik 2010eko 9,1era). Guztizko heriotza-kopuruarekiko ehunekoa ez da aldatu, hots, 1990eko bera da: %3. Bizkaian jaitsi dira gehien tasak, %3 urtean, eta Araba zein Gipuzkoan %2 (14.A, 15.I, 16.A, 17.I, 18.A, 19.I, 20.A eta 21.I taulak).



#### 4.8. irudia. Diabetes mellitusarengatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

Zintzur-heste, bronkio eta birikako tumore gaiztoagatiko heriotza-tasak nabarmen egin dute gora aldi honetan, urtean %5,8, hain zuzen ere (1990eko 5,3tik 2010eko 15,6ra). 1990ean gaixotasun horrek emakumezkoen heriotza guztien %0,9 eragin zuen (20. tokian zegoen zerrendan), eta 2010ean %3. Gipuzkoako tasen urtean %6ko igoera izan da altuena, eta atzetik doaz Bizkaia eta Arabakoak (**14.A, 15.E, 16.A, 17.E, 18.A, 19.E, 20.A eta 21.E taulak**).



#### 4.9. irudia. Zintzur-heste, bronkio eta birikako tumore gaiztoengatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

BGBKen ondoriozko heriotza tasek, oster, nabarmen jaitsi dira aldi honetan, urtean %4, zehazki (1990eko 13,7tik 1020eko 7,4ra). 1990ean gaixotasun horrek emakumezkoen heriotza guztien %3 eragin zuen (zortzigarren zegoen zerrendan), eta 2010ean %2. Araban jaitsi dira gehien tasak, %6 urtean; ondoren, Bizkaian, %5; eta, azkenik, Gipuzkoan, %3 (**14.A, 15.Q, 16.A, 17.Q, 18.A, 19.Q, 20.A eta 21.Q taulak**).

#### 4.10. irudia. BGBK eta antzeko gaixotasunengatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak. EAE 1990-2010





UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.



*Koloneko tumore gaiztoaren* ondoriozko hilkortasunaren bilakaerak gorabeherak izan ditu: 1997ra arte urtean %2,6ko igoera nabarmena izan zuen (1990eko 9,2tik 1997ko 10,9ra); urte horretatik aurrera, ordea, urtean %0,9ko jaitsiera nabarmena (1997ko 10,9tik 2010eko 9,7ra) izan du. 1990ean gaixotasun horrek emakumezkoen heriotza guztien %2 eragin zuen (14. tokian zegoen zerrendan), eta halaxe dago 2010ean ere, %2an. Heriotza-tasek ez dute aldaketa esanguratsurik izan lurralde batean ere (**14A, 15B, 16A, 17B, 18A, 19B, 20A eta 21B**).



#### 4.11. irudia. Koloneko tumore gaiztoagatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

Giltzurruneko eta ureterreko gaixotasunen ondoriozko heriotza-tasek behera egin dute nabarmenaldi honetan: %2,1 urteko (7,9 1990ean eta 4,9 2010ean). Heriotzen guztizkoarekiko ehunekoa ez da ia ezer aldatu, eta %2koa izaten jarraitzen du, 1990ean bezala. Araban izan da tasen beherakadarik handiena, urteko %3koa, zehazki; gainerako lurraldeetan %2 ingurukoa izan da (**14.A, 15.S, 16.A, 17.S, 18.A, 19.S, 20.A eta 21.S taulak**).



#### 4.12. irudia. Giltzurruneko eta ureterreko gaixotasunengatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

*Urdaileko tumore gaiztoen* ondoriozko heriotza tasek ere nabarmen egin dute behera aldi honetan, urtean %4,3 (1990eko 12,0tik 2008eko 4,7ra). 1990ean gaixotasun horrek emakumezkoen heriotza guztien %2 eragin zuen (11. tokian zegoen zerrendan), eta 2010ean ere bai. Araba eta Bizkaian tasen beherakada aldi osoan luzatu da, baina Gipuzkoan, 2008an, heriotza-tasek gorakada izan zuten, adierazgarritasunik gabekoa bada ere (**14.A, 15.A, 16.A, 17.A, 18.A, 19.A, 20.A eta 21.A taulak**).



#### 4.13. irudia. Urdaileko tumore gaiztoagatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

*Pneumonien* ondoriozko heriotza-tasek urtean %3,2ko jaitsiera nabarmena izan dute aldi honetan (1990eko 10,9tik 2010eko 4,4ra). 1990ean gaixotasun horrek emakumezkoen heriotza guztien %2 eragin zuen (9. tokian zegoen zerrendan), eta 2010ean ere bai. Beherakada hori berdina izan da EAEko hiru lurraldeetan (14.A, 15.P, 16.A, 17.P, 18.A, 19.P, 20.A eta 21.P taulak).



#### 4.14. irudia. Pneumoniengatiko heriotza-tasaren bilakaera. Emakumeak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

Pankreako tumore gaiztoagatiko heriotza-tasek ez dute estatistikoki esanguratsuak diren aldaketarik izanaldi honetan (14.A, 15.D, 16.A, 17.D, 18.A, 19.D, 20.A eta 21.D taulak).

#### 4.15. irudia. Pankreako tumore gaiztoagatiko heriotza-tasaren bilakaera . Emakumeak. EAE 1990-2010





UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

## 6.2 Gizonezkoak

*Kardiopatia iskemikoa* da, gizonen artean, heriotza gehien eragin duen gaixotasuna. 1997tik aurrera tasek esanguratsuki e behera egin duten arren, %3,8 (91,5 1997an eta 59,7 2010ean), hain zuzen ere, heriotzen guztizkoarekiko ehunekoa ez da aldatu eta %10etik gertu dago oraindik ere. Beherakada esanguratsua izan da Araban aldi osoan zehar, %3ko indizearekin, bai eta Bizkaian ere, %2koarekin. Gipuzkoan, aldiz, beherakada handiena 1999. eta 2008. urteen artean gertatu zen, %6koa, eta urte horretatik aurrera gorakada (adierazgarritasunik gabekoa bada ere) hauteman daiteke (**14.B, 15.O, 16.B, 17.O, 18.B, 19.O, 20.B eta 21.O taulak**).



### 5.1. irudia. Kardiopatia iskemikoagatiko heriotza-tasaren bilakaera.Gizonak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

Zintzur-heste, bronkio eta birikako tumore gaiztoagatiko heriotza-tasak nabarmen egin dute behera 1994 urtetik aurrera, urtean %0,8, hain zuzen ere (1996eko 72,0tik 2010eko 60,5era). 1990ean hirugarren tokian zegoen, gizonezkoen heriotzen %7 eragiten baitzuen, baina ehuneko hori %9ra igo da 2010ean eta, horren ondorioz, bigarrenen jarri da. Lurralde historikoei erreparatuta, tasen gorakada esanguratsua izan zen Bizkaian 1990tik 1994rako aldian, urteko %5,1ekoa; gainerako lurraldeetan, ordea, aldaketak ez dira nabarmentzekoak izan (**14.B, 15.E, 16.B, 17.E, 18.B, 19.E, 20.B eta 21.E taulak**).



## 5.2. irudia. Zintzur-heste, bronkio eta biriketako tumore gaiztoengatiko heriotza-tasaren bilakaera. Gizonak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

Garuneko hodietako gaixotasunengatiko heriotza-tasek ere nabarmen egin dute behera aldi honetan, urtean %3,7, zehazki (1990eko 79,0tik 2010eko 35,9ra). 1990ean bigarren tokian zeuden, gizonezkoen heriotzen %8 eragiten baitzuten, baina ehuneko hori %6ra jaitsi da 2010ean eta, horren ondorioz, hirugarren tokian daude orain. Ez dago ezberdintasunik hiru lurraldeen artean (**14.B, 15.N, 16.B, 17.N, 18.B, 19.N, 20.B eta 21.N taulak**).

### 5.3. irudia. Garuneko hodietako gaixotasunengatiko heriotza-tasaren bilakaera.Gizonak. EAE 1990-2010




UAE: Urteko Aldaketa Ehuneko. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.




BGBK eta antzeko gaixotasunen ondoriozko heriotza-tasek ere nabarmen egin dute behera aldi honetan, urtean %4,9, zehazki (1990eko 56,4tik 2010eko 30,5era). 1990ean laugarren tokian zeuden, gizonezkoen heriotzen %6 eragiten baitzuten, eta 2010ean toki berean eusten dio zerrendan, ehuneko hori %5ra jaitsi den arren. Araba eta Bizkaian tasen beherakada (%3 urtean) aldi osoan luzatu da, baina Gipuzkoan %5eko beherakada esanguratsua 1999. eta 2010. urteen artean gertatu da (**14.B, 15.Q, 16.B, 17.Q, 18.B, 19.Q, 20.B eta 21.Q taulak**).

#### 5.4. irudia. BGBK eta antzeko gaixotasunengatiko heriotza-tasaren bilakaera.

Gizonak. EAE 1990-2010





#### Lurralde historikoa



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

Koloneko tumore gaiztoagatiko heriotza-tasek, ostera, urtean %1,5eko gorakada esanguratsua izan du aldi honetan (1990eko 15,1etik 2010eko 23,7ra). 1990ean gizonezkoen heriotzen %1,3 eragiten zuen (zerrendako 17. tokian zegoen), baina ehuneko hori %4koa da 2010ean. Bizkaiko tasen urtean %2ko igoera izan da altuena, eta atzetik doaz Gipuzkoa eta Arabakoena (**14.B, 15.B, 16.B, 17.B, 18.B, 19.B, 20.B eta 21.B taulak**).



### 5.5. irudia. Koloneko tumore gaiztoagatiko heriotza-tasaren bilakaera. Gizonak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehuneko. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

*Prostatato tumore gaiztoagatiko* heriotza-tasak nabarmen egin du behera 1997. eta 2010. urteen artean, %2,2, hain zuzen ere (1997ko 25,3tik 2010eko 19,2era). 1990ean hamargarren tokian zegoen gaixotasun hau, gizonezkoen heriotzen %2 eragiten baitzuen, baina datu hori %3an dago 2010ean. Arabako tasen urtean %2ko igoera izan da altuena, eta atzetik doaz Gipuzkoa eta Bizkaikoenak (**14.B, 15.G, 16.B, 17.G, 18.B, 19.G, 20.B eta 21.G taulak**).



### 5.6. irudia. Prostatato tumore gaiztoagatiko heriotza-tasaren bilakaera. Gizonak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

Zahartzaroko eta zahartzaro aurreko buruko asaldu organikoaren ondoriozko hilkortasunaren bilakaerak gorabeherak izan ditu aldi honetan: 1995. urtera bitartean %7,7ko igoera esanguratsua izan zen (1990ko 12,3tik 1995eko 20,7ra), hurrengo urteetan, 2006ra arte, urteko %1,8ko beherakada gertatu zen, esanguratsua hori ere (1995eko 20,7tik 2006ko 16,6ra), eta urte horretatik aurrera tasak gora egin du berriro ere, baina ez nabarmenki. 1990ean gaixotasun horrek gizonezkoen heriotza guztien %1,2 eragin zuen (24. tokian zegoen zerrendan), eta 2010ean %3. Araban izan da tasen gorakadarik handiena, 1990. eta 1995. urteen artean, batez ere (urtean %24koa); Bizkaian, berriz, %14ko gorakada esanguratsua 2007. eta 2010. urteen artean gertatu da; eta Gipuzkoan, azkenik, ez da aldaketa nabarmenik hauteman aldi osoan zehar (**14.B, 15.J, 16.B, 17.J, 18.B, 19.J, 20.B eta 21.J taulak**).



### 5.7. irudia. Zahartzaroko eta zahartzaro aurreko buruko asalduengatiko heriotza-tasaren bilakaera. Gizonak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

*Bihotz gutxiegitasunen* ondoriozko heriotza-tasek urtean %9,2ko jaitsiera nabarmena izan zuten 2003. urtera arte (1990eko 44,4tik 2003ko 15,0ra) eta, ordutik aurrera, egonkor eutsi diote. 1990ean gaixotasun horrek gizonezkoen heriotza guztien %4,2 eragin zuen (5. tokian zegoen zerrendan), eta 2010ean, berriz, %2,3. Araban tasen beherakada urteko %6koa izan da aldi osoan; Gipuzkoan %6ko beherakada gertatu da 2003. urtera arteko aldiari; eta Bizkaian, ostera, 1997. urtetik aurrera soilik hauteman da beherakada esanguratsua, urteko %5ekoa, hain zuzen ere (**14.B, 15.M, 16.B, 17.M, 18.B, 19.M, 20.B eta 21.M taulak**).



#### 5.8. irudia. Bihotz-gutxiegitasunagatiko heriotza-tasaren bilakaera. Gizonak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

Urdaileko tumore gaiztoen ondoriozko heriotza-tasek urtean %3,4ko jaitsiera esanguratsua izan dute aldi honetan (1990eko 22,9tik 2010eko 14,9ra). Heriotzen guztizkoarekiko ehunekoa ez da aldatu aldi osoan, eta %2tik gertu eutsi dio. Araban jaitsi dira gehien tasak, % 5 urtean; ondoren Gipuzkoan, %4; eta azkenik, Bizkaian, %3 (14.B, 15.A, 16.B, 17.A, 18.B, 19.A, 20.B eta 21.A taulak).



### 5.9. irudia. Urdaileko tumore gaiztoagatiko heriotza-tasaren bilakaera. Gizonak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

*Diabetes mellitusaren* ondoriozko hilkortasunaren bilakaerak gorabeherak izan ditu: 1999ra arte tasek gora egin zuten, esanguratsuki izan ez bazen ere; ordutik aurrera, ordea, urtean %2,3ko jaitiera nabarmena gertatu da (1999ko 16,6tik 2010eko 13,2ra). 1990ean gizonezkoen heriotzen %1,4 eragiten zuen (zerrendako 21. tokian zegoen), baina ehuneko hori %2,2ra igo da 2010ean (**14.B, 15.I, 16.B, 17.I, 18.B, 19.I, 20.B eta 21.I taulak**).



#### 5.10. irudia. Diabetes mellitusagatiko heriotza-tasaren bilakaera.Gizonak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

Maskuriko tumore gaiztoagatiko heriotza-tasek, ostera, urtean %1eko beherakada esanguratsua izan dute aldi honetan (1990eko 15,0tik 2010eko 13,3ra). 1990ean gizonezkoen heriotzen %1,5 eragiten zuen (zerrendako 17. tokian zegoen), eta ehuneko hori %2,2an dago 2010ean. Gipuzkoan soilik gertatu da urteko %1eko beherakada esanguratsua (14.B, 15.H, 16.B, 17.H, 18.B, 19.H, 20.B eta 21.H taulak).

#### 5.11. irudia. Maskuriko tumore gaiztoagatiko heriotza-tasaren bilakaera. Gizonak. EAE 1990-2010





UAE: Urteko Aldaketa Ehuneko. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.



Zirrosia eta gibelego gaixotasun kronikoen ondoriozko hilkortasunak urtean %3,5eko gorakada esanguratsua izan du aldi honetan (1990eko 31,6tik 2010eko 15,2ra). 1990ean gaixotasun horiek gizonezkoen heriotzen %3,4 eragiten zuten (zerrendako 6. tokian zeuden), baina datu hori %2,2koa da 2010ean (**14.B, 15.R, 16.B, 17.R, 18.B, 19.R, 20.B eta 21.R taulak**).



#### 5.12. irudia. Zirrosia eta gibelego gaixotasun kronikoengatik heriotza-tasaren bilakaera. Gizonak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

*Gaixotasun hipertentsiboen* ondoriozko heriotza-tasek ere gorakada esanguratsua izan du aldi honetan, urtean %3,4koa (1990eko 5,1etik 2010eko 12,7ra). 1990ean gizonezkoen heriotzen %0,5 eragiten zuten (zerrendako 34. tokian zeuden), baina ehuneko hori %2ra igo da 2010ean. Bizkaiko tasen urtean %4ko igoera izan da altuena, eta atzetik doa Gipuzkoa (%2). Araban, ostera, gorakada ez da estatistikoki esanguratsua izan (**14.B, 15.L, 16.B, 17.L, 18.B, 19.L, 20.B eta 21.L taulak**).



### 5.13. irudia. Hipertentsio-gaixotasunengatiko heriotza-tasaren bilakaera. Gizonak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

2005. urtera arte urtean %1,2 egin zuten behera *gibeleko eta gibel-barneko behazun-bideetako tumore gaiztoaren* ondoriozko heriotza-tasek (1990eko 12,7tik 2005eko 10,3era); urte horretatik aurrera gorakada nabarmena izan zen, %3,7koa, zehazki. 1990ean gaixotasun horrek gizonezkoen heriotza guztien %1,4 eragin zuen (20. tokian zegoen zerrendan), eta 2010ean, berriz, %2. Bizkaian eta Gipuzkoan ez da aldaketa esanguratsurik izan, baina Araban, 1990-2008 aldian, urtean %3 inguruko beherakada esanguratsua izan zuten heriotza-tasek eta urte hartatik aurrera, berriz, gorakada (adierazgarritasunik gabekoa bada ere) (**14.B, 15.C, 16.B, 17.C, 18.B, 19.C, 20.B eta 21.C**).



#### 5.14. irudia. Gibeledako eta gibel-barneko behazun-bideetako tumore gaiztoengatik heriotza-tasaren bilakaera. Gizonak. EAE 1990-2010




UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.

*Alzheimer gaixotasunaren* ondoriozko hilkortasunak gora egin du aldi honetan: tasek urtean %12,3ko gorakada esanguratsua izan zuten 2001. urtera arte (2,3 1990ean eta 11,4 2001ean) eta, ordutik aurrera, egonkor eutsi diote. 1990ean gaixotasun horrek gizonezkoen heriotza guztien %0,2 eragin zuen soilik (47. tokian zegoen zerrendan), eta 2010ean %2. Bizkaiko tasen gorakada urteko %6koa izan da aldi osoan; Gipuzkoan %11ko gorakada gertatu zen 2001. urtera arteko aldian; eta Araban, berriz, gorakada ez da esanguratsua izan estatistikoki (**14.B, 15.K, 16.B, 17.K, 18.B, 19.K, 20.B eta 21.K taulak**).

#### 5.15. irudia. Alzheimer gaixotasunagatiko heriotza-tasaren bilakaera.Gizonak. EAE 1990-2010



UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa. \*Ezberdintasun estatistikoki esanguratsua.



## 4 Iruzkina

2010. urtean guztizko heriotza-kopurua %1,4 jaitsi da, beste era batean esanda, aurreko urtean baino 267 heriotza gutxiago izan dira. Horrela, adinaren arabera egokitutako heriotza-tasa %3,6 baxuagoa da 2009koarekin alderatuta. Azken hamarkadari erreparatuta (2001-2010) eta emakumeen artean, tasa horrek urteko %2,0ko beherakada esanguratsua izan du (KT %95 -2,3tik -1,7ra igaro da), batez beste; eta %2,4koa (KT %95 -2,7tik -2,1era) gizonezkoen artean.

Bi sexuetan, aurreko urteetan bezalaxe, tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak dira heriotza-arrazoi nagusiak oraindik ere.

Tumoreen ondoriozko guztizko heriotza-kopurua %1,2 igo da aurreko urtearekin alderatuta. Emakumeen artean gorakada hori %0,6koa izan da soilik, eta adinaren arabera Europako biztanleriara egokitutako tasak ez du aldaketarik izan. Gizonezkoetan, berriz, kopuruaren gorakada %1,6koa izan da eta tasak %1 egin du behera.

Emakumeei dagokienez, aipatzekoa da bularreko tumore gaiztoak eusten diola zerrendako lehen tokian; gainera, heriotza-kopurua %0,3 igo da. Nolanahi ere, adinaren arabera egokitutako tasa %2 jaitsi da 2009koaren aldean. Azken bi hamarkadetan beherakada hori esanguratsua izan da. Zerrenda horretako bigarren tokian dago zintzur-heste, bronkio eta birikako tumore gaiztoa; gaixotasun honen kasu-kopuruak goraka jarraitzen du (%23), bai eta egokitutako tasak ere (%16). Hala, bada, 1990tik hona urtean batez beste gehien hazi den heriotza-arrazoietakoa bat da: %5,8. Hirugarren tokian dago koloneko tumore gaiztoa. Kasu-kopurua %8 hazi da eta adinaren arabera egokitutako heriotza-tasak %5 egin du gora 2009. urtearekin alderatuta. 1997ko datuen alderatuta, ordea, beherakada esanguratsua da. Gizonezkoen erreparatuz gero, heriotza gehien eragiten duen tumorea zintzur-heste, bronkio eta biriketako da oraindik orain. Kasuen kopurua eta egokitutako tasa %6 jaitsi dira, ordea (beherakada hori esanguratsua da 1994tik 2010era). Koloneko tumore gaiztoa dago bigarren zerrendan: 2009ko datuekin alderatuta kasu-kopuruak %7 igo dira baina tasan ez da aldaketarik izan. Igoera esanguratsua 1990-2010 aldiari dagokio. Prostatako tumore gaiztoa dago hirugarren tokian, kasu-kopuruaren %4ko igoerarekin eta tasaren %6ko beherakadarekin. Aldaketa hori esanguratsua da 1997tik aurrera.

Zirkulazio-sistemako gaixotasunek eragindako guztizko heriotza-kopurua %2 urritu da aurreko urtearekiko, bai eta adinaren arabera Europako biztanleriarekin estandarizatutako tasa ere, %5, hain zuzen ere. Beherakada hori bi sexuetan gertatu da: emakumeen artean heriotza-kopurua %4 urritu da eta tasa %7; gizonezkoen artean heriotza-kopurua %0,5 jaitsi da eta tasa, aldiz, %3.

Emakumeen artean, garuneko hodieta gaixotasunak dira heriotza-arrazoi nagusia, baina kasu-kopurua %11 urritu da eta tasa, berriz, %15. Kardiopatia iskemikoa dago bigarren tokian, nahiz eta, gaixotasun horri dagokionez ere, kasuen kopuruak zein tasak behera egin duten 2009 urtearekin alderatuta, %10, hain zuzen ere. Garuneko hodieta gaixotasunen beherakada esanguratsua izan da bi hamarkadetan, kardiopatia iskemikoaren ondoriozko hilkortasunean, ordea, beherakada 1996tik aurrera da esanguratsua.

Gizonezkoen taldean arrazoi ordena alderantzizkoa da, eta aldaketak txikiagoak izan dira. Gaixotasun-talde horretan, heriotza-arrazoi nagusia kardiopatia iskemikoa da, eta gorakadak izan ditu kasu kopuruan (%3) zein tasa estandarizatuan (%1); atzetik garuneko hodietako gaixotasunak datoz, heriotza kopuruan %9ko eta tasa estandarizatuan %11ko jaitsierekin, beti ere aurreko urtearekin alderatuta. Azken bi hamarkadetako bilakaera emakumeetan izandakoaren berdina izan da.

Arnas sistemako gaixotasunak hirugarren postuan daude, eta kasu kopuruan % 8ko beherakada izan dute (%5 emakumeetan eta %8 gizonetan), baita estandarizatutako tasan ere, %10ekoa (%8 emakumeetan eta %13 gizonetan).

